

Bi uren artetik

ragarri dute Baionako Planning Familial elkartearen hestea. Elkarre horiek herri zokoetara heltzeko sortu ziren gerla ondoko giroan, emazteen eskubideen defendatzeko. Hastapenean ardatz bazituzten kontrazepzioa eta abortuaren legeztatzea eta informazioa, berantago zabaldu zuten ildoan, askapen eta berdintasunaren alde, diskriminazioen eta bortizkeria mota guztien salatzeke, beti herri mugimenduaren oinarriekin, popularrak, hurbilak, brikolaje girokoak, hezitzaile rol garrantzitsuarekin. Gainera transmisio helburua ere zuten, belaunaldi batetik bestera aldarrikapenen jarraitzea, hezkuntza bideratzea, lortuaren bermatzea. Urak bidea egin zuen. Sozialistak boterera heltzean, oro har, bere eginen zituzten gai eta aldarrikapen feministak, baita hortik landa gaia instituzionalizatu, legerien bidea zabalduz. Herrietan gaindi lanean segitu zuten mugimendu herrikoiek; gaur ere hor diraute emazte antolakunde zabal anitzek, aldarrikapenak ozen eta *happeningaz* jantzirik eramaten trebe. Iparraldean ez dira eskas emazte elkarreak, erranen didazue, alta gero eta gutxiago dira, oihartzun gero eta ahulagoak.

Baionako Planninga hetsiko da eta beste lurraldeetakoak mehatxu berarekin dira. Zerratzearen arrazoien artean aitzina segitzeko militante eskasa aipatu da; nehor gutxi baizik ez da informazio permanentzien egiteko: ospitaleko zerbitzu gaingiduetara jo beharko da, bestalde informazioarako bide anitz ba omen dugu gaurko egunean, alha alde orotan. Alha bai, bila doanarentzat eta informazio xuxena gainerakoarengandik bereizten dakienarentzat.

Pentsa dezakegu aitzinatua dela dena, erakunde erraldoien eta politikarrien esku uzteko, behartsua bideratuz webgune zenbaitetara edo zerbitzu goizetik arrats galkatuetara. Alta, aitzin-



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

nekoen lorpenak gauza finko, bermatu eta definitiboak direnik ez da egia. Goizero gertakari nahiz detaile berri batek ilustratzen du. Iaz, Emazteen Eskubideen Behatokia hesten zen; finantzamendu istorio. Atzo, bikote gazte bati so, mutikoaren jokamoldeak bezainbat, neskaren onesprenak harritu ninduen: gaurko neskak gehiegi isiltzen dira. Auzoko farmaziako nagusia pleinitzen da gazteen desinformazioaz, biharamuneko pilulen salmenta beste antisorgailu edo preserbatiboena baino anitzez handiagoa du; hormona gaindosien ondorioez alarmista da. 2015ean (ofizialki) sei emazte hil ziren senarraren eskutik Euskal Herrian, 2014an Frantziak 134koa aitzinatzen zuen. Ez dakigu zenbatek zuten etxetik ihes egin, zenbatek jazarpena jasan lantokian, zenbatek beharrean ez asmatu norengana itzul laguntza edo aholku bila. Ultra taldeek ez dute okasio bakarra huts eginen eskubiderik arruntena eztabaidan jartzeko. Dena bat.

Uren kontra ez bagabiltza, bi uren artetik agian bai, etengabeko erronka berriei buru egin nahian, iraganeko auziak nahiz lorpenak baliatuak, zainduak eta transmitituak direla segur izan gabe. Badirudi Euskal Herrian beste lekutan bezala, feminismoak badituela mugimenduak, diskurtsoak, ahotsak, mobilizazioak, erakundeetara heltzeko asmoa, neurtzen ez dudana da ea nola eginen dugun erritmo honetan jarraituz, gurean behintzat, erroturik geratzeko gizarrean, mugimendu popularra izaten segitzeko. Dena ukanik ere eskura, sare, liburu eta aldizkaritan, tresna horiek ez lezake ordezka hurbileko sare eta inizatiba, funtsezkoa herria bada eta auzokoari ez huts egitea. Bestela, laster, lortua suntsiturik gertatu eta beharko da gibelerara egin konpontzeko. Besterik ez baikenuke eskas. ■